

Merkatuaren segmentazioa:

→ *Zein da zure bezeroa? Zein dira bezero horien ezaugarriak?*

Bezeroak dira enpresa batek funtzionatzeko behar den oinarri nagusia, haiek gabe gure enpresa ez luke zentzurik izango.

Hori dela eta, gailu honen bezeroak gaixotasun hau prebenitu nahi duten mota guztietako pertsonak izan daitezke, herentziazko gaixotasun hau duten pertsoneri, arazo hau eta beste hainbat arrazoiren aurrean beldurtuta dauden pertsoneri ere zuzenduta dago.

Baina batez ere adineko pertsoneri baliogarria izango litzateke, minbizia izateko joera handiagoa dutelako.

Gizarte Segurantzak ematen dituen diru laguntzaz gain, produktuaren prezioa ordaindu dezakeen bezero bati zuzenduta dago.

Biztanleria osoak erabili dezakeenez, merkatu masibotzat hartuko litzateke, nahiz eta honen barruan erosle potentzialen hainbat talde egon.

Beste alderdi batzuetan, produktuaren kalitate ona baloratzen duten eta bizitzak salbatzen laguntzeko helburuarekin egina dagoen pertsoneri zuzenduta egongo litzateke.